

# Asisko gutuna

2012ko urtarrila. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

kanporantz, elkartasuna

39. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Beren eguneroko bizitzan frantziskotar espiritualitatea, oinarrizko lau printzipioren bidez, ezagutu eta partekatu nahi duten pertsonari irekitako sare soziala da Asis Sarea.

Hil honetan Asis Sareak hirugarren printzipioaz gogoeta egitea proposatzen du:

“Eguneroko bizitza kanporantz: solidaritatea”. Hau da Gutunak eskaintzen duen gai nagusia: pertsonari begiratu.

Besteengana irekitzen garelarik, gure solidaritatea eta egitekoa benetako bihurtzen da.

## Gogoetarako gaia

### Pertsonari begiratu

Krisi-garaian denok sumatzen dugu nor bere burua ahal duen bezala salbatu beharra. Urritasunak, segurtasun-faltaren larriak eta etorkizun benetan ez-seguruari begiratzeak itxita gelditzera bultzatzen gaituzte, gureak direnak babestera eta nolabait gurea den eta zain dezakegun lurraldea salbatzera.

Markatzen ditugu geure interesak eta aurrera goaz erabakiak hartuz, egiten dugunak gure inguruan sortzen duenari gehiegi begiratu gabe. Zailtasun-aldi hauetan, egiten ditugun hainbat gauzek eragina dute beste pertsonengan; horregatik funtsezkoa da besteekiko adi ibiltzea.

Geure lanean ere, inoiz, “nork berea konpon” batek bihotz-gogor uzten gaitu besteari gertatzen zaionarekiko, edo aitzakia ematen digu geure erabakien erantzukizuna eta berorien ondorioak geure gain ez hartzeko, edo gutxienez azala gogortzen digu erabaki horiek besteei ekar diezaiaketen sufrimendua ez ikusteko, pertsona horiek erabili eta botatzeko gauza bihurtzen ditugarik.

Adiskide arteko harremanetan, besteak gauza bezala erabiltzea da haietaz geure probetxurako baliatzea, ematea dagokigun entregan edo esker ematean edo arduran ezertarako pentsatu gabe.

Solidaritateak askotan ez du behar hitz handirik edo pobre arrotzik. Solidaritatearen bideak geure ingurukoetara eramaten gaitu, eta zerikusia du pertsonak gauza gisa eta erabili eta botatzeko jende bezala ez erabiltzearekin, eta pertsonari beren duintasunera eta sufrimendura gerturatuz begiratzearekin.

Ebanjelioan, Jesusek aurkitzen dituen gizon-emakumei egin-begiradak pertsonari so egiten dio, haren errealitateari, sufrimenduari eta mugatasunari. Otoitzean, Jesusen begiradak beti gure duintasunaren gailurrari begiratzen dio. Toki horretatik, zalantza eta beldurrez beteriko garai hauetan, har dezakegu sostengu begirada horretan, inor gure interesaren objektu bihurtu ez dezagun. Ez kendu begirada besteagandik, begiratu baizik zaintza emateko, ez baztertzeko, ez ahazteko.

## Ebanjelioko pasartea: Lk 19,1-10

Jesus Jerikon sartu eta herrian barrena zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-burua, oso aberatsa.

Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen, baina ezin zuen jendearengatik, txikia baitzen. Lasterka aurrerago joan eta pikondo batera igo zen, Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen. Jesusek, hara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Jaitsi zen, bada, berehala eta pozik hartu zuen etxean.

Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: «Bekatari baten etxera joan duk ostatur».

Zakeok, berriz, zutiturik, Jaunari esan zion:

—Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei ematen dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot.

Jesusek esan zion:

—Gaur iritsi da salbamena etxe honetara, gizon hau ere Abrahamen ondorengoa baita.

Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da.

## Frantziskotar pasartea

Jaunagandik Frantziskok anaiak hartu zituen, eta horrez gain anaia izatea, bestearekin benetan topo egitea, pertsonaren duintasun sakona aurkitzen duen begirada. Merkatarari artean hazia zen, merkataritzan ibilia, eta ezagutzen zituen negozioaren legeak: aberasteko norik bere buruari bakarrik begiratu behar dio, irabazirik handiena ateratzen saiatu, bestearen bizkarretik izanik ere. Ikasia zuen ekintza bakoitzaren irabazia kalkulatzeko. Hirien gorantz joateak berekin zeraman pertsonak gero eta gehiago ezezagunen artean aurkitzea, babesik gabe, gero eta familiarte eta solidaritate gutxiagoko giroan. Pobreak bazterrean uzten ziren, besterik gabe.

Baina Jaunak bihotz-berritzen hastea eman zionean, lepradunen artera eraman zuen eta haiek errukiz tratatzen ikasi zuen, pertsona bakoitzaren duintasuna ikusarazten duen errukiaz; besarkatzen ikasi zuen, horren bidez onartzen baita ezer gabe utzia izan dena eta irabazirik atera ezin zaiona, baina bihotza aberasten duena; dena partekarazten duen solidaritatearen aurkikuntza egin zuen; hura beste negozio bat zen: praktikatzeko Jesusen ondoan ikasten den negozioa, bertan irabazia norik bere burua ahaztearen proportzioan doalarik. Ziur aski, Frantzisko merkatarari aberatsak ez zuen kontuan zenbat sufrimendu zuen inguruan, zenbat sostengatzen zen bere aberastasuna besteak pobretzearen gainean, berak zenbat ezberdintasun sorrarazten zuen, Jaunak lepradunen artera eraman zuen arte. Orduen hurbildu zen baztertuengana, senideen artean anaia izanez.

## Otoitza

Jesus Kristo Jauna,  
beldurra ematen digu bizitza gastatzeak.  
Baina zuk horretarako eman diguzu bizitza,  
gastatzeko;  
ezin da hura egoismo antzuan ekonomizatu.  
Hori da bizitza gastatzea: besteen alde lan egitea  
pagatzen ez dutenean ere,  
mesede egitea ordainduko ez duenari;  
bizitza gastatzea, are porrotean murgiltzea da  
beharrezko bada, zuhurtzia faltsurik gabe;  
itsasontziak erretzea hurkoaren alde. (...)  
Bizitza gastatu,

ez da gastatzen espantu hanpatuz  
eta imintzio faltsuz.  
Bizitza eman egiten da, besterik gabe,  
iragarkirik gabe, ura maldan behera doan antzera,  
amak bularra semeei ematen dien antzera,  
ereilearen izerdi apalaren antzera. (...)  
Etorkizuna enigma bat da,  
gure bidea behe-lainoan murgiltzen da;  
baina emanak biziz jarraitu nahi dugu,  
Zu zain baitzaude gauean  
malkoz beteriko mila begiz.

Luis Espinal

## Gutuneko azken hitzak

“Solidaritatearen esperientziarik gabe, gazte baten heziketa burutu gabe gelditzen da”.

## 2012ko otsaileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate otsaileko erreferentzia guztiak:

|              |               |                |                   |                |
|--------------|---------------|----------------|-------------------|----------------|
| 1 Mk 6,1-6   | 7 Mk 7,1-13   | 13 Mk 8,11-13  | 19 Mk 2,1-12      | 25 Lk 5,27-32  |
| 2 Lk 2,22-32 | 8 Mk 7,14-23  | 14 Lk 10,1-9   | 20 Mk 9,14-29     | 26 Mk 1,12-15  |
| 3 Mk 6,14-29 | 9 Mk 7,24-30  | 15 Mk 8,22-26  | 21 Mk 9,30-37     | 27 Mt 25,31-46 |
| 4 Mk 6,30-34 | 10 Mk 7,31-37 | 16 Mk 8,27-33  | 22 Mt 6,1-6.16-18 | 28 Mt 6,7-15   |
| 5 Mk 1,29-39 | 11 Mk 8,1-10  | 17 Mk 8,34-9,1 | 23 Lk 9,22-25     | 29 Lk 11,29-32 |
| 6 Mk 6,53-56 | 12 Mk 1,40-45 | 18 Mk 9,2-13   | 24 Mt 9,14-15     |                |

# Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

# Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

## Asisko gutuna

2012ko urtarrila. 3. printzipioa: eguneroko bizitza:

kanporantz, elkartasuna

39. zenbakia

Hirugarren printzipioa den “Eguneroko bizitza kanporantz: solidaritatea” erabiliz gogoeta, otoitz eta lan egiteko, gai hau eskaintzen zaigu: pertsonari begiratu. Gure solidaritatea eta besteen aldeko lana pertsonari begiratzuz, soilik, izango da benetakoa mundua aldatzeko, astiro bederik ere.

### Pertsonari begiratu

Krisian, krisi modu orotan, gabiltza. Zure bizitzako zein aldetan nabarmentzen da krisi hori? Lanean, familiako harremanetan, seme-alabekin, lagunetik harremanetan, auzokoekin...? Zein zailtasun aurkitzen dituzu harreman horietan? Nabaritu duzu zer aldatu den “krisian gabiltza” esaten dugunetik? Zertan aldatu dira zure harremanak?

Zeure baitara begira jarrita, besteek erabilia sentitu zara? Eta zeure baitan barrurago begira, jokatu duzu norbaitekin zeure edo zeureen segurtasunaren bila?

Baina ez gara soilik ezezkor izango. Krisi aldietan ere agertzen dira bereari bakarrik begiratzen ez dioten pertsonak, sufritzen dutenekin sufritzen dutenak, irekita eta laguntzeko prest daudenak bizitza haientzat hain zaila izan ez dadin.

Zeintzuk dira aurkitu dituzun horrelako pertsonak, zuregatik edo gaizki pasatzen ari direnengatik arduratzen direnak?

Zeure burua ere aurkitu duzu, inoiz edo norbaitekin, besteen arazoez konpontzeko ahaleginak egiten, zeure buruaz ahaztuz?

Aprobetxa ezazu gogoeta-gai hau, zeure tratuz inoiz zauritu ahal izan dituzun pertsonen alde otoitz egiteko.

“...gaur zure etxean gelditu behar dut eta»

Zakeok Jesus ezagutzeko gogoeta du, ziur aski entzun du hartaz hitz egiten eta deigarri egin zaio zerbait herengan.

Baina Zakeo txikia zen, eta “txikia”, orobat, bere gizarte-maila: zergalari zen eta aberatsa. Horrek ez dio Jesusi axolarik ematen, haren jarrera ikusten du eta begiratu egiten dio pikondotik jaisteko agintzeko, haren etxean gelditu nahi du eta. Zein jarreratan aurkitzen zaitu gaur Jesusek? Behar den tokira “igotzeko” prest

zaude, haren begiradarekin aurkitzeko? Jesusek Zakeori dei egin zionean, testuak dioenez, marmarka hasi ziren denak. Zer egiten dugu guk, besteei lanean, familian, espiritu gauzetan ... hobeto doakiela ikustean? Marmarka hasten gara?

Zakeok, liluratuta utzi duen eta besteak ez bezala tratatu duen gizon hori dela eta, bere ondasunen parte eman nahi du eta egin zitzakeen kalteengatik ordaina eman.

Jesusek ez dio Zakeori duenagatik eta den bezalakoa izateagatik erresuminez begiratzen, ez dio ezer aurpegiratzen; salbamena eskaintzen die berari eta guztiei, egiten ditugun diferentziak ezabatuz eta beste ezer baino gorago pertsona jarritz.

Beraren eskuetan jarriko gara, bada, galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri delako, gizakiari bere balio osoa eman diolako.

### Frantziskotar espiritualitatea

Historiaren une honetan, Frantzisko bere etxeko lanean ari zenean bezala aurkitzen gara: han edozeren kontura dirua irabazteak zuen garrantzia. Pobreak sortzeaz gain, pobretu egin gara geure harremanetan, besteen aurrean egiteko eta haiei begiratzeko moduan.

Senideen aurkikuntza egiteko eta senide gisa elkar aurkitzeko unea da. Nondik has gaitzake?

Nire bizitzako une honetan nora narama Jaunak senide izan nadin, neure buruaz ahaztu eta besteei emana bizi nadin? Zein senide besarkatzea eskatzen dit?

### Bizitza gastatu

Egizu otoitz testuaren bidez eta eskatu Jaunari, erakuts diezazula “bizitza gastatzen”, berori behar zaituen senideen alde emanaz.